

**New Bioregions Facility**

**Bioeskualdeen Sare berria**

**Nueva Red de Bioregiones**

## **Bioregions Facility aurkezteko ekitaldia: Jakinduria konektatu, eskualdeetan ekiteko**

2020ko martxoaren 9a, Euskalduna Jauregia, Bilbo, Espainia

### **Testuingurua**

Bioekonomia zirkular iraunkorra, inklusiboa eta handinahia funtsezkoa da garapen iraunkorrerako eta gure ekonomiak karbonoa behar ez izateko. Bioekonomia zirkularrerantz aurrera egiteko, ekosistemak eta biomasa ongi erabili behar dira, eraginkortasunez, eta iraunkortasuna gogoan izanda. Era horretan, produzituko diren biomaterialak, produktuak eta zerbitzuak gauza izango dira berriztagarriak ez diren beste batzuk ordeztuko; adibidez, plastikoak, hormigoia edo altzairua, karbono igorpen handiak eragiten eta energia kantitate handiak behar baitituzte.

Eraldaketa horretan, eskualdeetan ekitea ezinbestekoa da, aintzat harturik ekosistema naturalen espezifikotasuna, basoen eta beste biobaliabide batzuen eskuragarritasuna, eta baldintza teknologiko zein sozioekonomikoak. Hala ere, xede hori erdiesteko eta aurrera egiteko, nazioarteko lankidetzak izan behar du eskualdeetako ekintzen funtsa, Europako ikuspegi bateratu baten barnean.

Basoak oinarri dituen bioekonomia zirkularra sustatu nahi duten eskualdeek batera lan egin behar dute, esparru horretan duten ahalmena bideratzeko. Besteak beste, estrategia eta ekintza bateratuak bultzatu behar dituzte, trebeziak sortu, bat egin, eta beren esperientzien berri eman elkarri: berrikuntza, erakundeak, azpiegiturak, eta inbertsioak. Trukeari eta lankidetzari hasiera emate aldera, Bioregions Facility aurkezteko ekitaldia egingo da Bilbon.

### **Programa**

**9:00 Izena ematea eta kafea**

**9:30 Ongietorria**

Arantxa Tapia Otaegi, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua, Eusko Jaurlaritza  
Marc Palahí, Europako Baso Institutuko zuzendaria

### **Europako testuingurua**

Burua: Marc Palahí, Europako Baso Institutuko zuzendaria

**9:45 Sarrera: zer da basoak oinarri dituen bioekonomia zirkularra**

Peter Wehrheim, Bioekonomia eta Elikagai Sistemak unitateko burua, Europako Batzordeko Ikerketarako eta Berrikuntzarako Zuzendaritza Nagusia

**10:00 Aliantza publiko-pribatuak bioekonomiari begira**

Philippe Mengal, BBIko zuzendaria

**10:15 Bioekonomia zirkularrean inbertitzea**

Adrian Enache, Basogintza Sektorean eta Landatar Garapenean espezialista Europako Inbertsio Bankuan

**10:30 Bioekonomian berrikuntzarantz aurrera egitea: inbertsiogile probidentzial batengandik ikasitako ikasgaiak**

Nick Lyth, Green Angel Syndicate Ltd enpresako CEOa



# New Bioregions Facility

## Bioeskualdeen Sare berria

## Nueva Red de Bioregiones

### 10:45 Irekiera instituzionala

Iñigo Urkullu, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

### 10:55 Atsedenaldea kafea hartzeko

### Eskualdeetako ikuspegiak

Burua: Diana Tuomasjukka, Bioregionseko koordinatzailea, zientzialari burua bioekonomiari buruzko programan, EFI

### 11:15 Bioekonomia zirkularra lortzeko eskualdeen rola

Ulrika Landergren, Eskualdeen Europako Batzordeko Baliabide Naturalen Batzordeko burua (NAT)

### 11:30 Zer da Bioregions Facility

Inazio Martinez de Arano, Europako Baso Institutuko Mediterraneoko bulegoko burua

### 11:45 Euskal bioekonomia: esperientziak eta planak

Arantxa Tapia Otaegi, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua, Eusko Jaurlaritza

### 12:10 Ipar Kareliako bioekonomia: esperientziak eta planak

Risto Poutiainen, Ipar Karelia eskualdeko ordezkaria, Finlandia

Harri Palviainen, Business Joensuuko burua

### 12:35 Ipar Renania-Westfaliako bioekonomia: esperientziak eta planak

Hubert Kaiser, Basogintza eta Naturaren Kontserbazioa Saileko burua eta, Ipar Renania-Westfalia estatuko Basogintza Administrazio burua

### 13:00 Eztabaida eta amaitzeko adierazpena

### 13:15 Argazkia

### 13:20 - 14:15 Lunch-a

